# Denbora-




## 1 Hitzak osatu

Joan den asteko zikloiak hankaz gora jarri dizkigu silaba guztiak. Ondoko irudiei begiratuta silabak ordenatu eta hitzak modu egokian jarriko al dituzu?

Erantzunak: **1.-** Garaikurra / Eraztuna / Sardeska. **2.-** C. **3.-** Behia-Txakurra / Astoa - Txoria / Ardia - Katua / Zerria - Untxia. **4.-** Moto / Ogitarteko / Liburuak. **5.-** A eta E

## 2 Itzalak

Leirek India ezagutzeko gogoa omen du, eta Taj Mahal gaztelua marrazten aritu da. Zein itzal dagokio Leirek egindako marrazki politari?




## 3 Lotu bikoteak

Baserrira joan da Ekain, amonari bisita egitera. Animalia pila bat ikusi du han, bakoitza bere balioarekin. Izango al zara gai balio bereko animaliak bikoteka elkartzeko?



# -pasak

## 4 Osatu esaldiak

Marrazkiak eta hitzak tartekatu dituzte Jonek eta Laidak idazlan bat egiteko. Zure txanda da orain. Jarri hitzak marrazkien ordez eta berridatzi esaldiak!

**Oso**  **polita dauka nire osaba Mikelek**

**Mendira noalako amak**  **goxoa prestatu dit**

**Abenturazko**  **asko gustatzen zaizkit**

______________________________

______________________________

______________________________

## 5 Bikiak

Geografia ikasteko ezinbesteko tresna da munduko mapa. Zortzi dituzu aldamenean, eta oso antzekoak diruditen arren, bi baino ez dira berdin-berdinak. Zeintzuk?




## Botilak betetzera!



Plastikozko botilak eta edalontziak birziklatzera bota aurretik, irakurri arretaz jolas hau. Agian baten bat gordeko duzu igerilekuan jolas egiteko.

**1** Jokalariak igerilekuaren alde batean jarriko dira, ura belaunetaraino ailegatzen zaiela.

**2** Igerilekuaren beste aldean, jokalari bakoitzarentzat plastikozko botila huts bat egongo da. Helburua botila betetzea izango da eta horretarako plastikozko edalontzi bat izango du bakoitzak. Albo batetik bestera abiatu aurretik bete beharko dugu edalontzia.

**3** Edalontzia bete ondoren, beste alderaino eraman behar da, esku ahurrean jarrita. Ezingo zaio edalontziari beste eskuarekin eutsi.

**4** Jokalari bakoitzak behar adina itzuli egin beharko ditu plastikozko botila bete arte. Lehengo betetzen duena izango da txapelduna!